



RKLAMATU
ATZERAPENAK | EZEZTAPENAK | OVERBOOKING

Egin klik zure kalte-ordaina kalkulatzeko

berria



Gizarte Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB



Estilo liburu



Maule

22 °C

Egin BERRIALAGUNA

Hasi saioa

Asteartea

2021eko irailak 14

Buletinak


Bizigiro

Elkarrekin indartsuago

Plataforma handien aurka egiteko elkarlana beharrezko dela nabarmendu dute Europako lau katetako arduradunek Iruñean, Conecta Fiction jaialdian egindako solasaldian.




Ainhoa Larretxea
Agirre



Sarean egin zuten mahaingurua. - / EZEZAGUNA


2021eko irailak 14



Lehia eta elkarlana. Elkarlana eta lehia. Bateraezinak diruditen kontzeptuak dira, baina, ikus-entzunezkoetan uste baino gertuago daudenak. Horixe nabarmendu dute Iruñeko Conecta Fiction jaialdian Europako lau telebistetako filzio arduradunek. *Europako kate publikoak: nola nabarmendu lehia handiko jokaleku batean* solasaldia izan zuten atzo, eta bertan parte hartu zuten Maria Pia Ammirati Italiako Rai kateko filzio arduradunak, Simone Emmelius Alemaniako ZDF kateko nazioarteko filzioek eta salerosketako arduradunak, Manuel Alduy France Telebistako nazioarteko garapen eta zinema arduradunak, eta Amalia Martinez de Velasco RTVEko eduki orokorrean zuzendaria.

«Europen denok dauzkagu aurkari berak: Netflix, HBO eta Amazon Prime, eta zer da horren aurrean egin dezakeguna? Elkarlana». Horixe nabarmendu zuen Alduyk, Europako kate publikoek elkarrekin lan egiteko beharra. Dagoeneko hasiak dira telebista kate batzuk horretan, eta elkarlaren horrek emandako uztaren xehetasunak aletu zituzten: Italiako eta Frantziako kateek batera ekoitzitako *Leonardo* telesaila, adibidez. Aitzinera begira ere, iparra elkarlanean dutela nabarmendu zuen Pia Ammiratik: «Sinistu egiten dugu aliantzeta, elkarlanean. Familia batean bezala gauza txarrak eta onak konpartitzen ditugu: proiektuak, helburuak, arazoak eta ametsak». Bide horretan, elkarlana proiektu handietan egiteaz gaindi, audientzia zehatzagoa dutenetan ere aplikatzeko beharra paratu zuen mahai gainean Emmeliusek, gazteentzako edukietan adibidez.

Sarean egotearen beharra



Italiako, Frantziako eta Alemaniako kateak ez bezala, Espainiako RTVE ez da oraindik Europako aliantza horretan batu; Martinez-de Velascoren hitzetan, ordea, horretan paratua dute begirada. Elkarlanerako urratsak egin artean, plataforma handien kontra lan egiteko dituzten erremintak aletu zituen:

«Kalitateko produktuak eskaintza, eta produktuak sarean kalitatez aurkeztea».

Ikus-entzunezko merkatua aldatu egin da, lau solaskideek bat egin zuten horretan, baina aldaketa horren aitzinean duela hamar urte ez zituzten abantailak dituztela azaldu zuen Aldayk: «Audientziaren inoiz baino datu gehiago ditugu. Dagoeneko produktu ona izatearekin ez da nahikoa. Zerbait erosit behar dugunean ziur izan behar dugu audientziari produktu gustatuko zaio».

Antzeko mintzatu zen Emmelius ere: «Kontsumitzaile gazteengan jarri behar dugu arreta; horiek bereganatzera erronka handia da».

Bide horretan eman zuen solasaldiko gakoetako bat RTVEko ordezkariek: kontsumo ohitura nola aldatu diren. «Audientziak nahi duen euskarri eta nahi duen lekuaren kontsumitu nahi du, eta telebista kateon lana da horretara egokitza».

Etorkizunera begira dituzten erronkak nabarmendu zituzten lau solaskideek: telebista publikoek elkarlanean kalitateko edukiak sortzen jarraitza, eta horiek nazioarteko zein nazio mailako audientziarengana iristea eta aniztasuna sustatzea.

Sareko BERRIAzalea:

Iratcurri berri duzu edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako milaka irakurle egindako ekarpenearekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeak laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaaren berri ematen segitu.

[Irizpidea duzulako. Giroan zabaltzalako.](#)

[Egin BERRIALAGUNA](#)

[Zuk badakizulako.](#)

Advertisement

Euskal kultur agenda BERRIAn



Albiste gehiago



Urrian egingo dute Xingarraren Azoka Baionan, pandemiarra egokituta

Jean-Rene Etxegarai Baionako auzapezak argitu duenean, urriaren 15etik 17ra egingo da azoka, osasun neurrietara egokituta



«Kultura erabili dugu borroka brigada gisa»

IKER TUBIA

Atzera begira, Banda Bassotti taldearen ibilera jaso ditu Cacchionek bere memoria liburuan. Musikaren bider borrokarako dela egiten jarraitzen dute:

«Ezin dugu pentstu betiereko porrota garenik».



Elkarrekin indartsuago

AINHOA LARRETXEA AGIRRE

Plataforma handien aurka egiteko elkarlana beharrezko dela nabarmendu dute Europako lau katetako arduradunek Iruñean, Conecta Fiction jaialdian egindako solasaldian.



Zinemak ere baditu bere tripak

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA

Zinemara joanetik gero, pantailan ikusten dira filmak, baina ikuslea, sari, ez da ohartzen zer dagoen atzean. Pelikulak hautatu egin behar dira, publikoaren beharren arabera, bai eta proiektatu ere.

Gasteizko Florida zinemetan, adibidez, hori guztia gogoan antolatzan dituzte zortzi aretoak.

Advertisement

0 Iruzkin

Berria

Disqus' Privacy Policy


Saioa hasi

Gomendatu

Tweet

Partekatu

Berrienetik hasita



Hasi eztabaidea...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUIS-EKIN

Izena



«Una manera de hacer Europa»

Euskal Garapenerako Europar Fonda (EGEF)

«Una oportunidad para todos»

Harpidetu

Gehitu

Disqus zure webgunera

Do Not Sell My Data

DISQUS

berria

Berria.eus - Euskal Editore SM

Telfonoa: 943-30 40 30

Faxa: 943-59 01 72

Webgunea: webgunea@berria.eus

Publizitatea: publi@berria.eus

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

Facebook

Twitter

Instagram

Youtobe

RSS

SAILAK

Gizarte

Politika

Mundua

Ekonoma

Iritzia

Berria TB

Kirola

Kultura

Bizigiro

Ibilbiri

Infografiak

Argazkiak

LEGEA

Legi Infoazioa

Pribatasun politika

Cookieak

Zozketak

Lan eskaintzak

Lizentzia

Publizitatea

Bidera zerbitzuak

MIDAS Media

zerbitzua eta
lana euskara

Euskadi, auzolana

EUSKAL
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

UZEI

emakumeen eta gizonen
berdintasunaren
lankidetza erakundeak

Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

«Una manera de hacer Europa»

Euskal Garapenerako
Europar Fonda (EGEF)

«Una oportunidad para todos»

berria

berria

HITZA

Ilauka

BADOK